

IRAKURKETA ERRAZAREN GIDA



Irakurketa Erraza



Ixone-Sádaba-----

-----"Escala-1:1"

06/02>27/04/2025-----

-----erakusketa

exposición/exhibition-----

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Euskadi Irakurketa Erraza elkartearekin lankidetzan, Irakurketa Errazaren Gida argitaratzen du erakusketa bakoitzarekin batera.

Edukiak Irakurketa Errazaren bidez editatuta, informazioa egokitzen da Zentroko publiko-komunitateen idatzizko eta irakurketako ulermen-maila desberdinetara.

TITULUA: Escala 1:1

ARTISTA: Ixone Sádaba

TOKIA: Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

EGUNAK: 2025eko otsailaren 6tik apirilaren 27ra

ARTISTA

Ixone Sádaba artista eta ikertzailea da.

Bilbon jaio zen 1977an.

Euskal Herriko Unibertsitatean

Arte Ederretan lizentziatu zen

eta New Yorkeko Internacional Center

of Photography-n ikasi du.

Ixonek 20 urteko baino gehiagoko esperientzia du
artearen munduan.

Bere erakusketak ikusgai egon dira

Guggenheim Bilbao, Madrilgo Reina Sofía,

Torontoko MoCCA

eta New Orleanseko Contemporary Arts Center-en,

Estatu Batuetan

KOMISARIOA

Carles Guerra erakusketako **komisarioa** da.

Ampostan jaio zen 1965ean.

Arte-kritikaria, irakaslea eta ikertzailea da.

Kataluniako Udaberri Fotografikoaren,

Virreina Centre de la Imatge-ren eta

Fundació Antoni Tapies-en zuzendaria izan da.

MACBAko (Museo d'Art Contemporani de Barcelona)

kontserbatzaile burua ere bada.

Komisarioa: Erakusketa bateko lanak aukeratzeaz arduratzen den pertsona da, gaian aditua izanda, erakusgai dagoenari buruzko diskurtso teorikoa.

Carles Guerra erakusketa **monografiko**

eta beste proiektu artistiko askoren

komisarioa izan da.

Monografikoa: gai jakin bat xehetasun handiz jorratzen duen argitalpena edo lana.



ERAKUSKETA: Aurkezpena

Ixone Sádabak “Escala 1:1” izenburua jarri dio erakusketa honi.

Gauzak dagokien tamaina errealean

irudikatzeko eskala da.

Erakusketa Lemoizko zentral nuklearraren

aztarnei buruzko argazki-erakusketa bat da.

Lemoizko zentrala Bizkaian eraiki zuten,

Basordas kalan, 1972 eta 1984 artean.

Sekula ez zuten abian jarri.

Indarkeriak eta borroka zibilek

markatu zuten zentralaren historia.

Gaur egun, hormigoizko bloke handien

hondarrak baizik ez daude,

desagertzeko zorian.

“ESCALA 1:1”: Lemoizen arlo material, sinboliko eta politikoari buruzko ikerketa fotografikoa

Lemoizko zentralaren hondakineterako

sarbidea itxita egon da azken.

Ixone Sádabak Alhóndigaren barrualdean

jarri nahi izan ditu eraikuntzen zatiak,

hormetan tamaina errealeko

proiektzio fotografikoak egiten.

Ikerlan hau gonbidapen bat da

leku horren memoriari buruzko eztabaida

publikoari berriz ekiteko, orainalditik abiatuta.

Ixone Sádaba zentralari buruzko materiala biltzen
eta ikertzen aritu da azken 4 urteetan.

Bere erakusketak irudi hauek erakusten ditu:

-Zentralaren espazioko hondakinak eta haren ingurunea.

1974an, begiratoki bat eraiki zuten,
obrak nola egiten zituzten ikusteko.

Ixone Sádabak erakusketa-aretoaren erdiko espazioan jarri du,
Lemoizko instalazioen iragana,
oraina eta etorkizuna bertatik ikusi ahal izateko.

